

## Xedapen Orokorrak

**OGASUN ETA  
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

**2379**

94/2009 DEKRETUA, apirilaren 21eko, informazio- eta telekomunikazio-sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzen dituen dekretua aldatzekoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren informazio- eta telekomunikazio-sistemen planifikazioari eta eraketari buruz administrazio honek emandako araudi orokorra otsailaren 18ko 35/1997 Dekretuan jasota dago. Dekretu horrek informazio- eta telekomunikazio-sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzen ditu.

Dekretu horretako bigarren xedapen gehigarriak -«Administrazio Instituzionaleko beste entitate batzuekiko harremanak» izenekoak- ezartzen du zerbitzu informatikoak Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea SAren bidez antolatuko direla eta, horretarako, Eusko Jaurlaritzak sozietate horrekin programa-kontratu bat izenpetuko duela hitzarmen baten bidez; azkenik, dekretu horren garaiko «Euskalnet SA» sozietate publikoaren jarduketa-eremua finkatzen du.

Nolanahi ere, batetik, azken urteetan izandako aldaketak -besteak beste, aipatutako azken sozietate hori desagertu izana- eta, bestetik, Sektore Publikoko Kontratuaren urriaren 30eko 30/2007 Legeak administrazioaren berezko bitarteko instrumental eta zerbitzu teknikoei dagokienez ezartzen duen araudi berriak funtsezko eta oinarrizko arrazoiaik dira dekretu honen bidez egiten den aldaketa gauzatzeko.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko apirilaren 21ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra.**— Informazio- eta telekomunikazio-sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzen dituen otsailaren 18ko 35/1997 Dekretua aldatzea.

## Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

**2379**

Decreto 94/2009, de 21 de abril, de modificación del Decreto por el que se regula la planificación, organización, distribución de funciones y modalidades de gestión en materia de sistemas de información y telecomunicaciones.

La regulación general dictada por esta Administración en relación con la planificación y organización en materia de sistemas de información y telecomunicaciones de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma se encuentra en el Decreto 35/1997, de 18 de febrero, por el que se regula la planificación, organización, distribución de funciones y modalidades de gestión en materia de sistemas de información y telecomunicaciones.

La disposición adicional segunda de dicho decreto establece, bajo el título «Relaciones con algunas entidades de la Administración Institucional» la organización de la prestación de servicios informáticos a través de la sociedad pública «Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea-Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.A.» y la celebración con ésta, mediante la vía del convenio, de un contrato-programa, así como, el ámbito de actuación de la entonces existente sociedad pública «Euskalnet, S.A.»

Los cambios operados en los últimos años, entre ellos, la extinción de esta última sociedad y la nueva regulación que en relación con los medios instrumentales propios y servicios técnicos de la Administración contempla la Ley de Contratos del Sector Público (Ley 30/2007, de 30 de octubre), reclaman y fundamentan la modificación que realiza el presente Decreto.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 21 de abril de 2009,

DISPONGO:

**Artículo único.**— Modificación del Decreto 35/1997, de 18 de febrero, por el que se regula la planificación, organización, distribución de funciones y modalidades de gestión en materia de sistemas de información y telecomunicaciones.

1.– Aldatu egiten da otsailaren 18ko 35/1997 Dekretuaren 8. artikulua. Hora, honela geratuko da erredaktatuta:

«8. artikulua.– Kudeaketa-modalitateak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren informazio- eta telekomunikazio-sistemen kudeaketa, sail eta entitate institucionalek burutuko dute, bakoitzak dituen ahalmen eremuaren barruan. Horretarako, dituzten giza baliabideak eta baliabide materialak erabili ahal izango dituzte, lege ordenamenduan aurreikusita dauden modalitateez baliatu ahal izango dira eta beste entitate publiko eta pribatu batzuekin kontratuak edo hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte, sektore publikoko kontratuai buruzko legedian agintzen denari jarraituz.»

2.– Aldatu egiten da otsailaren 18ko 35/1997 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria. Hora, honela geratuko da erredaktatuta:

«Bigarrena.– Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea, SA sozietate publikoak bete beharreko kudeaketa-gomendioak.

Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea SA (EJIE) sozietate publikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoari zerbitzu informatikoak emateko ardura izango du, betiere sozietatearen sorrera eta jarduera ezartzen dituzten arauetan, dekretu honetan eta aplikagarri diren gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zerbitzu-, programa- eta aplikazio-sistemen ustiaketaren eta ingeniaritzaren ardura Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea SAk izango du beti ere.

Funtzio horiek batera, sailek eta erakunde autonomoek, dekretu honetan ezarritakoari jarraiki, informatika-arloko bestelako egitekoak ere EJIEren esku utziko dituzte (laguntza teknikoa barne). Horretarako, beharrezko kudeatzeko gomendioak bideratuko dira, aplikatzekoak den araudian eta sozietatearen estatutuetan ezarritakoaren arabera. Gomendio horien bidez honako hauek zehaztuko dira: EJIEk egin beharko dituen jarduerak, erdietsi beharreko helburu eta emaitzak, eta prezioak. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak ezarriko ditu tarifak, nahikotasun ekonomiko eta finantzarioko irizpideak aplikatuz eta, hala badagokio, EJIE berezko bitarteko eta zerbitzu tekniko gisa baliatzen duten gainerako erakundeek parte hartuz.»

1.– Se da nueva redacción al artículo 8 del Decreto 35/1997, de 18 de febrero, cuyo texto queda sustituido por el siguiente:

«Artículo 8.– Modalidades de gestión.

La gestión de los sistemas de información y de los sistemas de telecomunicación de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco se llevará a cabo por los diferentes departamentos y entes institucionales dentro del ámbito de sus atribuciones, a cuyo fin podrán destinar sus propios recursos humanos y materiales, utilizar las distintas modalidades de gestión previstas en el ordenamiento jurídico, así como celebrar contratos o convenios con otros entes públicos y privados de conformidad a la legislación de contratos del sector público.»

2.– Se da nueva redacción a la disposición adicional segunda del Decreto 35/1997, de 18 de febrero, cuyo texto queda sustituido por el siguiente:

«Segunda.– Encomiendas de gestión a la sociedad Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea-Sociedad Informática del Gobierno Vaco, S.A.

La sociedad pública Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea-Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.A., se ocupará de la prestación de servicios informáticos de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco en los términos establecidos en sus normas de creación y funcionamiento, en el presente decreto y demás normativa de aplicación.

En todo caso, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea-Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.A se encargará de la explotación y de la ingeniería de sistemas en relación a los servicios, programas y aplicaciones informáticas de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Para estas funciones, así como para cualesquier otras de contenido informático, incluida la asistencia técnica, que, conforme a las atribuciones establecidas en el presente decreto, le sean encargadas por los diferentes departamentos y organismos autónomos, se realizarán las oportunas encomiendas de gestión en los términos fijados en la normativa aplicable y en los estatutos de la sociedad, en ellas se especificarán las prestaciones encomendadas, los objetivos y resultados pretendidos así como el precio resultante de la aplicación de las tarifas fijadas con criterios de suficiencia económico-financiera por la Administración Pública de la Comunidad Autónoma con la participación, en su caso, de las demás entidades para las que la sociedad tenga la condición de medio propio y servicio técnico.»

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko apirilaren 21ean.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,  
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

DISPOSICIÓN FINAL.– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de abril de 2009.

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.  
La Consejera de Hacienda y Administración Pública,  
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.